

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

1/2021 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua aldatzekoa.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «1/2021 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua aldatzekoa»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2021eko martxoaren 8a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia. (1742)

HITZAURREA

COVID-19ak osasun publikoaren arloan eragin duen eta Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemiatzat jo duen larrialdi egoera gertatu eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma egoera Estatuko lurralde osoan deklaratu zuenetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat izaeratako neurriak onartu eta hartu ditu, osasun larrialdiak eragindako ondorio gogorak arintzearen.

Haien artean nabarmentzen dira tributuen esparruko neurriak, Euskadiko Autonomia Estatutuak eta Ekonomia Itunaren Legeak lurralde historikoei esleitutako eskumenen arabera hartutakoak.

Neurri horiek onartzeak badu eraginik foru arau bidez erregulatu behar diren gaietan, eta, bilatzen den erantzuna, presakoa izanik, ezin denez lortu foru arauak onartzeko araugintzako prozedura arruntaren bidez, haren epeak luzeak baitira oso, egoki iritzi da neurri horiek foru dekretu-arau bidez onartzea, hartu beharreko neurriak berehala aplikatzekoak baitira. Horrela, dagoeneko zortzi foru dekretu-arau bideratu ditu Ogasun eta Finantza Departamentuak. Eta pandemia egoerak luzatzeko itxura duenez, litekeena da, horien segidan, beste foru dekretu-arau batzuk etortzea, egoera aldakorra baita oso.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, premiazko eta aparteko arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen horiek foru dekretu-arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari eragin. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta osorik bozkatu behar dira berehala, baliozkotuak izateko.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Norma Foral 1/2021, de 8 de marzo, por la que se modifica la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 1/2021, de 8 de marzo, por la que se modifica la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 8 de marzo de 2021.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (1742)

PREÁMBULO

Desde que se produjo la situación de emergencia de salud pública ocasionada por la Covid-19, declarada como pandemia internacional por parte de la Organización Mundial de la Salud, y del estado de alarma declarado en todo el territorio del Estado por el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido aprobando y adoptando diversas medidas de diferente naturaleza, cuyo propósito ha sido paliar las graves consecuencias ocasionadas por la emergencia sanitaria.

Entre las diferentes medidas cabe destacar las adoptadas en el ámbito tributario, en virtud de las competencias atribuidas a los Territorios Históricos por el Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley del Concierto Económico.

La aprobación de estas medidas incide en aspectos que requieren su regulación por norma foral, y resultando que la respuesta perseguida, de carácter urgente, no puede conseguirse a través del procedimiento normativo ordinario de aprobación de norma foral, debido a lo dilatado de sus plazos, se considera precedente su aprobación mediante un decreto foral-norma, justificado en la inminente aplicación de las medidas a adoptar. De este modo, el Departamento de Hacienda y Finanzas ha tramitado ya ocho decretos forales-norma, a los que probablemente se sumen otros, ya que la situación es muy cambiante, y se prevé que la pandemia se alargue en el tiempo.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

Hain zuzen ere, Batzar Nagusietan aurrera eraman beharreko premiazko izapidetzea errazteko Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 14. artikulua 3. apartatua aldatzen da.

Aldaketaren muina zera da: Foru Aldundiak Foru Dekretu-Arau bat Batzar Nagusietara bidaltzen duenean, baliozkotua izan dadin, ganberako taldeei bermatzea jasoko dutela, gutxienez, berau aztertzeke ezinbestekoa den aurrekontu eraginaren txosten ekonomikoarekin.

Halaber, gogoratu behar da Foru Aldundiak Foru Dekretu-Arauak onartzeko egin beharreko izapidetzean araugintzako ekimenei dagozkien txostenak gehitzen zaizkiela Diputatuen Kontseiluan onartu ahal izateko. Araugilearen ideia da, beraz, informazio hori talde batzarkideei ofizioz helaraztea, Foru Arau Proiektuekin egiten den bezala.

Artikulu bakarra. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 14. artikulua 3. apartatua honela idatzita geratzen da:

«3. Foru Dekretu-Arauak argitaratuko dira Foru Arauak argitaratzen diren bezala; eta Batzar Nagusiei aurkeztuko zaizkie txosten batez lagundurik, non azalduko baita aurrekontu eragirik duten ala ez. Aurrekontu eragina badute, finantzaketa txosten bat ere izan behar dute.»

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Y precisamente para facilitar la tramitación urgente a llevar a cabo en las Juntas Generales, se modifica el apartado 3 del artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La modificación consiste, esencialmente, en que cuando la Diputación Foral remita a las Juntas Generales un decreto foral-norma para que sea convalidado, se garantice que los grupos de la cámara reciban, al menos, el informe económico de impacto presupuestario necesario para su estudio.

Cabe recordar que en la tramitación a realizar por la Diputación Foral para la aprobación de los decretos forales-norma se añaden, para su aprobación en el Consejo de Gobierno Foral, los informes correspondientes a las iniciativas normativas. La idea es, por tanto, trasladar esta información de oficio a los grupos junteros, tal y como se hace con los Proyectos de Norma Foral.

Artículo único. El apartado 3 del artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa queda redactado así:

«3. Los Decretos Forales-Norma se publicarán en la misma forma que las Normas Forales y serán presentados ante las Juntas Generales acompañados de un informe en el que se haga constar si dichos decretos forales-norma tienen o no repercusión presupuestaria. Si la tienen, deberán ir acompañados del correspondiente informe de financiación.»

Disposición final. Entrada en vigor.

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.